

NAZIOARTEKO SARIAK EUSKAL EKOIZLEENTZAT

Euskal Herriko sagardo ekoizleak sarituak izan dira nazioarteko hainbat sagardo lehiaketatan.

Gero eta gehiago dira nazioartean jokatzeko diren sagardo lehiaketak, baita Euskal Herriko ekoizleek horietan lortzen dituzten sariak ere. Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa gero eta ezagunagoa da nazioartean, eta, horri esker, erreferentziatzeko kokapena eskuratu du nazioarteko sagardo lehiaketetan. Baina, sagardo naturalak gain, euskal sagardogileek ekoiztutako sagardo apardunak, izotzezkoak, lupuludunak eta hainbat zaporetakoak ere sarituak izan dira, Alemanian eta Norvegian esaterako.

Sagardoa modan dago, eta nazioarteko sagardo lehiaketak, ekitaldiak eta azokak horren erakusgarri dira. Aurten, esaterako, ekitaldi ugari izan dira nazioartean: Cider World'22 sagardo lehiaketa eta azoka Alemanian, Hardanger Internazional Siderfesten 2022ko ekitaldia Norvegian, NICA 2022 & Norwegian Cider Festival sagardo lehiaketa eta azoka Norvegian, Ciderlands Sarearen urteko III. Topaketa Norvegian, Sidrama sagardo azoka Portugalen, Salen Internazional de les Sidres de Gala (SISGA) sagardo lehiaketa eta azoka Asturiasen (Espainiako estatua), World Cider Awards 2022 sagardo lehiaketa Erresuma Batuan, 2022 Australian Cider Awards sagardo lehiaketa Australiako CiderCon 2022 sagardo lehiaketa Ameriketako Estatu Batuetan, Great Lakes International Cider and Perry Competition (GLINTCAP) sagardo lehiaketa Ameriketako Estatu Batuetan, Cider & Perry Competition 2022 sagardo lehiaketa Erresuma Batuan, 2022 Fruit Wine & Cider Awards Zeelanda Berrian, eta abar.

SARI UGARI

Hala, hainek izan dira Euskal He-



NICA (Nordic International Cider Awards) sagardo lehiaketan sarituak izan dira Zapiain eta Petritegi sagardotegiak. SAGARDOAREN LURRALDEA

rrio sagardo ekoizleak eskuratu dituzten nazioarteko sariak: CiderWorld: Euskal Herriko sagardo ekoizleak zazpi sari lortu dituzte: • Kupelaren Alingurak sagardoak, brontzea sagardo naturalak kategorian, eta Kupela Traditional Basque Cider sagardoak ere, brontzea kategorian berean. • Petritegi Euskal Sagardoa, brontzea sagardo naturalak kategorian; Petritegi aparduna Brut Nature sagardoak, zilarra sagardo apardunak kategorian, eta Petritegi beraren Sugar Sagar Krash sagardoak, urrea zaporetako sagardoak kategorian. • Zapiain Premium Euskal Sagardoa, urrea sagardo naturalak

kategorian, eta Zapiainen Bizi-Goxo 2015 izotzezko sagardoak, urrea izotzezko sagardoak kategorian. NICA (Nordic International Cider Awards): Euskal Herriko sagardo ekoizleak 21 sari lortu dituzte: • Aburuza Euskal Sagardoa, brontzea, eta Aburuza Euskal Sagardoa Premium sagardoa, urrea. • Bizio ekoizlearen Zelala sagardoa, brontzea; Pako sagardoa, zilarra, eta Basoa sagardoa, urrea. • Gurutzeta Euskal Sagardoa, brontzea; Gurutzeta Euskal Sagardoa, zilarra, eta Gurutzeta Gorenak sagardoa, zilarra.

- Petritegi Suhar sagardoa, brontzea; Petritegi Apardunak, zilarra, eta Petritegiaren Sagar Krash sagardoa, urrea eta bere kategoriako onenaren saria (zaporetako sagardoa).
- R.Zabala sagardotegiaren R.80 sagardoa, zilarra.
- Oiharte sagardotegiaren sagardo lupuludunak, zilarra; Markesa Euskal Sagardo naturalak, zilarra eta Oiharte haritz egurrean onduak, zilarra.
- Isastegiaren Euskal Sagardoa Premium sagardoa, zilarra.
- Zapiainen Bizi Goxo 2017 izotzezko sagardoa, zilarra; Zapiain Euskal Sagardoa 2021 sagardoa, urrea, eta Joanes de Zapiain 2021 sagardoa, urrea eta bere kategoriako onenaren saria (sagardo naturala).
- Salon International de les Sidres de Gala (SISGA):** Euskal Herriko sagardo ekoizleak hamar sari lortu dituzte: • Baldorba sagardotegiaren Sagardoz Baldorba Naturele sagardoa, urrea sagardo pattarrak kategorian.
- Gartzategiaren Anne sagardoa, zilarra kopako sagardo lehorra kategorian.
- Iturrietaren Sagetzi sagardoa, Premium saria zaporetako sagardoa kategorian.
- Kuartangoren Callabocas sagardoa, zilarra lupuludun sagardoa kategorian, eta Su Sagardoa, Premium saria suzko sagardoa kategorian.
- Oiharteren Markesa sagardoa, zilarra kopako sagardo lehorra kategorian.
- Ola sagardotegiaren Sagetzi Ardo sagardoa, brontzea zaporetako sagardoa kategorian.
- Petritegiaren Brut Nature sagardoa, zilarra Brut Nature sagardo aparduna kategorian.
- Txopinondo sagardotegiaren Cidre Petillant sagardoa, brontzea kopako sagardo erdilehorra kategorian, eta Sagatir edariak, Premium saria sagardo bereziak kategorian.

2023ko ekitaldiak

2023an ere sagardoi buruzko ekitaldiek beren lekua izango dute nazioarteko hitzorduetan, eta dagoeneko jakinarazi dituzte sagardo lehiaketa, ekitaldi eta azoka batzuen datuak: Cider World'23 lehiaketa eta azoka Frankfurt (Alemania) izango da, apirilaren 28an eta 29an; Hardanger Internazional Siderfesten 2023ko ekitaldia, maiatzaren 11 eta 13 artean, Norvegiako Odda eta Sørkjorden hirietan; CiderCon 2023 sagardo lehiaketa, urtarrilaren 31tik otsailaren 3ra, Chicagoko (Ameriketako Estatu Batuk), eta V. Sagardo Forumak, azaroaren amaieran, Euskal Herrian.

Sagardoaren nazioarteko beste pauso bat eman eta Euskal Herriko sagardoaren kultura nazioartean sustatzeko, 2023ko azaroaren amaieran V. Sagardo Forumak antolatuko da. Aurreko aldian bezala, hiru arlotan eginutako da azken urteetan nazioartean hitzorduko garrantzitsua izan dena: batetik, sagardari eta sagardoi buruzko jardunaldi teknikoak izango dira; bestetik, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da; eta, azkenik, Nazioarteko Sagardo Azoka egingo da.

Sagardo Forumak euskal sagardoaren kultura nazioartean kokatzeko funtzio garrantzitsua bete du orain arte: euskal mugetatik harago sagardoaren kultura ezagutarazi du, baita nazioarteko sagardoak Euskal Herrian ere ezagutarazi ditu, nazioarteko harremanak sendotu eta nazioartean sagardoa ekoizten duten norbanakoekin Ciderlands sarean osatzera iritsi arte.

ola
SAGARDOTEGIA

Antzako burdinola bainu pinezko
lehiaketa sagardotegia
Bertako sagardotegia egindako
sagardoa

Artzatek lanurabera, afariak
Ostiralean, lanurabera eta
igandeak, bazkariak
Sagardo ekologikoa

Meaka auzoa, 102 • IRUN • 943-62 31 30 • www.olasagardotegia.eus

ZABALIK DITUGU ATEAK!

oialume zar
sagardotegia

www.oialumezar.com
Mikel Amoztegui 16, 48100 GARRAZA 16, 943 15 29 18